

IRITZIA: PELLO ESNAL / AIA: BITTORI ALBENIZ
HERRIKO KONTUAK: ORIORA.COM

KARKARA

107A



Ruandatik bueltan

Izan zaitez KARKARAren laguntzaile!

KARKARA etxearen jasotzearen truke urtean 5.000 pta. ordaintzeko prest dauden lagunak behar ditugu. KARKARAren gastuak arintzeko, oso estimagarria izango zaigu zure laguntza.

KARKARAren laguntzaile izan nahi baduzu, oso erraza da: eskuetan duzun paper hau (edo fotokopia, moztu beharrik ez duzu) zure datuekin bete eta utz ezazu KARKARAren buzolan (Udaletxe atzeko karkaran dago oraindik) edo bidal ezazu korreoz. Gu arduratuko gara gainontzekoaz.

Jakina, iaz edo orain bi urte laguntzaile egin zinetenek ez duzue berriro egin beharrik.

Karkararen laguntzaile izan nahi dut

Izen-deiturak: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ Posta kodea: _____ Telefonoa: _____

KARKARA aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago **KARKARA**ri urteko 5.000 PTako laguntza emateko. Hauek dira nire kontu korronteko datuak:

Entitatea

Sukurtsala

KD

Kontu zenbakia

KARKARA ALDIZKARIA, Herriko plaza, 1 20810 ORIO Tel.: 943 83 15 27

Eneko Olariaga S.L.

Aholkularitza eta aseguruak



Zerbitzu eskaintza zabala:
aseguruak
errenta aitorpena
pentsio planak
banketxe produktuak

MAPFRE, Asesoría SAYMA,
Banco Guipuzcoano... bezalako
etxe garrantzitsuekin kolaboratzen dugu.

**Gure ofizinatik pasatzera
gonbidatzen zaituztegu,
inongo konpromisurik gabe**

Baxoalde kalea, 4 behe (parke berrian) Tel: 943 13 37 20 Faxa: 943 83 52 98

KARKARA

Orio eta Alako aldizkaria

Kultur etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@topogunea.com

LEGE GORDAILUA SS 346/90

ISSN 1132-1105

TRAMA 2.700 ale

EDITIONA

KARKARA TALDEA

ZUZENDARIA

Ana G. de Txabami

ERREDAKZIO BURUAK

Rikardo Uzkudun
eta Pat Cowie

ERREDAKZIO TALDEA

Miren Etxeberria, Jakes
Golkotxoa, Ana Iturain,
Iñaki Iturain, Nere Manterola,
Ainara Peña eta
Javier Zabaleta

AIKO ERREDAKZIOA

Garbiñe Azpiroz eta Eli Lasa

PUBLIZITATEA

Mari Jose Alkain

TESTUEN ZUZENDARIA

Miren Etxeberria eta
Javier Zabaleta

ALE HONETAKO LAGUNTAZALEAK

Luis Otamendi, Urko Aldalur,
Pello Esnal eta Josu Sarobe

ARGAZKIOEN DIGITALIZAZIOA

Ana G. de Txabami

DISEINUA

AZALA Golo Arana

SARRIENDA Javier Zabaleta

PUBLIZITATEA Iñigo Gaztañazpi

BANATZAILEAK

Miguel Angel Sanz (Orion)
Iker Zuloaga (Alan)

INFORMAZIA

Gertu Koop. E. (Oñati)

KARKARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
edota iritzien erantzukizunik.

KARKARA argitaratutakoa beme-
rman daiteke, osorik edo zatikoa,
baldin esa iturria alpatzen bada.

BERTSO JARRIAK

Langileen egunari

1

Aste Santua igaro degu
laister maiatzaren bata
langileriak jai egin daigun
lanak albora lagata
sor digutena eska dezagun
benetan egun aparta
bada ezpata atera gabe
geiegizko zalaparta
alik ongien pasa dezagun
au gure eguna data.

2

Urte mordo bat badaramagu
egun audi au ospatzen
langileria gure geroak
ez gaitu gutxi kezkatzen
lan gutxiago diru gesago
naiz gogor jardun eskatzen
geure arteko sestrak utzita
ez bagerade elkartzen
zail izango da nahi deguna ta
zor zaiguna eskuratzent.

3

Langileriak bizi nai luke
geroz eta obetoago
baina nagusi jendea ere
lokarturikan ez dago
guk erribidea jotzen badugu
eurek albotik ordago
egia esan neroni behintzat
zalantzaz beterik nago
obetu ordez ote goazen
geroz eta okerrago.

4

Langilearen eskubideak
eskalutzeko oitura
gogoratuaz, maiatzak bata
urtero dugu bilkura
denok elkartuz eska dezagun
guri zor diguten ura
abere gisan lan egiteko
ez ginen sortu mundura
eta gauean lasai apaldu
nagusiaren kontura

LUIS OTAMENDI

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

| | |
|----------------------|------------|
| Modulu bat | 1.500 PTA |
| Bi modulu | 3.000 PTA |
| Hiru modulu | 4.500 PTA |
| Lau modulu | 6.000 PTA |
| Sei modulu | 9.000 PTA |
| Zortzi modulu | 12.000 PTA |
| Orrialde erdia | 15.000 PTA |
| Orrialde osoa | 22.500 PTA |

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

| | |
|----------------------|------------|
| Modulu bat | 2.000 PTA |
| Bi modulu | 4.000 PTA |
| Hiru modulu | 6.000 PTA |
| Lau modulu | 8.000 PTA |
| Sei modulu | 12.000 PTA |
| Zortzi modulu | 16.000 PTA |
| Orrialde erdia | 20.000 PTA |
| Orrialde osoa | 35.000 PTA |

Irakaria hamabostero edo hilero jartzen dutenei (bi aletik behin) % 10eko deskontua egingo zaio.
Publizitates kontratazko, hitz egin Mari Jose Alkainekin (656 75 04 89 edo 943 13 41 46).



Eusko Jaurlaritzak
druz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioak
druz lagundutako aldizkaria



Oñati Udalak
druz lagundutako aldizkaria



Aiako Udalak
druz lagundutako aldizkaria

Agur, Arantza

Arantza Carbonell zarauztar gaztea hil zen apirilaren 20an, eta ustekabeko albisteak oroitzapenak ekarri dizkigu burura trumilka: urte batzuk egin behar ditugu atzera, iraganera, ez gehiegi, hamar-hamabi bat.

Neska gazte zarauztar bat ikusten dugu Egin egunkariko Orioko kronika egiten, ia egunero. Hasieran, galderak gure artean: baina zein da neska hau? Zer dela eta Zaratzko neska bat Orioko kronika egiten? Erantzuna ez zen erraza, Dirutan oso gaizki ordaindutako lana zen; irakurleen esker onaren aldetik, beharbada, okerrago. Kanpotarra zenez eta, beraz, herria ondo czagutzen ez zenez, lana biderkatu egingo zitzaiot. Hala ere, lan ona egiten zuen. Gai interesgarriak aukeratzen zituen, eta haziakien hasek ondo lantzen. Gainera, ederk iñazten zuen. Eta euskara hutsean. Aldizkari hau sortzeko ahaleginean ari ginuen batzuk garai hartan, eta benetan estimatzen genion lana.

Urte batzuk eman zituen zeregin horretan, Gero, halako hantean, txoko hura desagertu egin zen Egin-etik eta, geroztik gaur arte, ez du etengabeko segidariak izan. Batzuek Arantzaaren kronika-mina sentitu genuen.

KARKARA aldizkaria herriko informazioa euskaraz lantzeko sortu genuen, eta Arantza ere horretan ibili zen aldetik, egoki iruditu zaigu lero hauen bitartez haren oroinmena zuenganatzea

KARKARA TALDEA



gutunetarako

OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAren buzoian utz daitezke (udal-letxe atzeko portalean), edo gure lokalean entregatu (kultur etxeen). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.com

KARKARA ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argita ratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARA bere egiten du eskutitak laburtzeko eskubidea.

HEMEROTEKA

Arriskutan dagoen espezie baten azken babesleku

1901eko maiatzaren 15ean (sic) Orioko arrantzaleek gure uretan harrapatu-tako azken balea hil zuten. Historiagileek diotenaren arabera, baleak astindu latza eragin zien herritarrei, baina aldi berean, lokartuta zuten ehiztari sena piztu zitzaien.

Balearen salmentan oinarritutako euskal merkataritzaren lehenengo aztarnak 670. urtekoak dira...)

JOSEBA BONTIGI.

APIRILAREN 20KO ZAZPIKA
ALDIZKARIAN AGERTUA

HERRITARREN KEXAK

Txirrista arriskutsua

Orio aldera askotan etortzen den donostiar bat Orioko Bentako haur parkeko lurzoruan kexatu da orain gutxi. Parke horretan txirrista eta suhiltzaileen barra moduko baten azpian harri kozkorrak bistan egotea ez dela normala dio. Normala, istripurik ez gertatzeko, gainera hondarra botatzea izango litzatekeela esaten du. Orain, eguraldi ondorekin haur asko joaten da hara eta joan goren bakoitzean izan da istripuren bat, tartean larriaren bat ere bai. Mesedez, norbariek konpandu dezola disgusturen bat izan baino lehen.



KARKARA

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

bodegas ERRASTI, S. L.



Eskualdeko banatzalea
Zudugarai, Iñagares, Gaizur,
Ardandegi, Señorio de Laurgain

Eskola Gudar, 46
943 83 03 85 / 943 83 03 52
E-mail: bodegaserrasti@eukanet.net

943 89 04 89 / 88
info@karkara.com

Aia

Izurtzu erretegia

Andazurrate gaina—Asteasu / 943 58 08 66



Hartuko al duzu parte Balearen egunean?



JUAN MANUEL FRIAS

24 urte

Bai. Egun horretan parte hartzeko asmoa badut, eta arrantzalez-edo jantzikoa naiz, noski.

Bertsoak abestu behar baldin baditugu, nik bi bakkariak dakizkit buruz. Ikasi behar baldin badira, ikasiko ditur.



IBÁN EGIGUREN

24 urte

Bai. Plazan egingo den antzerkian hartuko dut parte. Arrantzalearen papera egingo dut; oraintxe hasi naiz testua buruz ikasten.

Bertsoak ere kantatu beharko ditugu, baina nik aurrenekoak eta azkenekoak bakarrik dakizkit. Jantzikoa dungan arropaz, berriz, oraindik ez dakigu ezer askorik. Ea dena ondo ateratzen den!



ARANTXA PEÑA

43 urte

Ahal bada, bai, baina, laurixketa denez, lanean aritu ko naiz. Hala ere, bilere-tara etorri izan naiz, ahal izan dudan neurrian parte hartzera. Balkoia apainduko dut; dagoeneko sa-reak ditut etxean.

Ideia polita iruditzen zait. Gainera, herriak ez du horrelakorik ezagutu. Kalean aditzen dur jendea horretaz hitz egiten, eta horrek asko esan nahi du.



MARÍA VILCHES

18 urte

Jakina, gustura, gainera. Aiako batek aipatu zidan eta antzerkia antolatzeko lau bileretara etorri naiz.

Antzerki honetan parte hartzea aukera polita iruditu zait. Saregilea izango naiz, heste bi neskarekin.

Oso animatuta nago antzerkian parte hartzeko, eta jenderalitzeko balio badu, hobe. Aukera polita iruditzen zait.

HERRI IKASTOLA

GURASO KOOPERATIBA

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

GOIZEKO ☼
Kafetegia

Gosariak
Pintxoak
Plater Konbinatuak
Ogitarteak

Pasteleriko cokargueak
hartzen dira
Etxera eramateko,
eskatu eahi dezuna!!!

Aita Lortzundi Kalea, 29
Tel. 943 83 28 55 ORIO

ARKAITZ
Taberna

Pintzoak, plater konbinatuak,
bokaleak

Abeslari kalea, 4 Tel. 943 83 16 57 ORIO

ORIO KORISTA

EDARTEGIA
KOLON TXIKI

JATETXEA

Iturriko Kepaztza, 4 ORIO Tel. 943 83 00 44



EGILEAK. Iñigo Fernández eta Ander Erguinek orriaren egileak, eta Urtzi Garmendia orriaren logoaren.

www.oriora.com sarean

■ Dagoeneko interneten da Oriori buruzko orrialdea

Juan den apirilaren 9ean aurkeztu zuten Iñigo Fernándezek eta Ander Erguinek kultur etxearen www.oriora.com web orrialde berria osaturik. Iaz, Udalaren babesja jaso ondoren, martxan jarri zuten proiektu hori, eta zenbait bilera eta bilabete batzuren ostean, orrialdea osatu dute KARKARAko erréprodukzio taldearen laguntzarekin.

2000KO EKAINENAN IÑIGO Fernándezek eta Ander Erguinek, Publizitate eta Informatikako ikasleak hurrenez hurren, Oriori buruzko web-oriaria egitea proposatu zioten Udalari. Udalbarzaren oniritzia jaso bezain pronto, infor-

mazio eta argazkiak bildu, eta web orria taxutzeari ekin zioten. Horretarako, eta herriko talde guztiiei gongitza luzatu ondoren, bilera pare bat egin ziren talde horien proposamenak jaso eta beren txoko edo atala ere izan zezaten. Talde batzuek interes handia

erakutsi zuten eta beste batzuek gutxiago; beraz, bakotzak erakutsi duen interesaren eta egin duen ahaleginaren araberakoa ere bada web orriaren edukia.

Arrautak, adibidez, atal oso bat betetzen du, eta bertan historia pixka bat, kirol pal-

HARIARI TIRAKA

Eztabaidea gunearen unea

Rikardo Uzkudun

Herríko web orriaren ideia eta proiektua oso ona iruditu zaigu guztioi; oraindik, askok dastatzeko aukerarik izan ez baduzue ere, emaitza ere guztiontzat oso txukuna izan dela esango nuke. Denei gustatzen zaigu gure herria zein ederra eta berezia den kanpotarrei erakustea eta interneta lehio ezin hobea da horretarako. Baina web orri honek, oriotarron harrotasuna kanporatzeaz gain, hallo behar du beste zerbaitearako ere. Gurezako jakinekoak diren informazio atalak baino garrantzi handiago beharko luke eztabaidea guneak, iraganari begira egotea baino garrantzi handiagoa baitu etorkizunari so egiteak. Saltsaz gain, ikusiko dugu atal honek zer ematen duen.

maresa, Kontxan izandako lorpenak eta argazki mordo bat aurkitu daitezke. Aipatzeko moduko beste atala, Orio-kojenioei eskaintakoa da; ale-gia, Jorge Oteiza, Benito Lertxundi eta Anjel Lertxundiri eskaintakoa. Bertan, oriota-rroa nortasuna zabaldu duten hiru artista handi horiei buruzko informazio dezente dator; aldi berean, pertsonaien horien inguruko beste web orriean sartzeko loturak ere bidaude. Gainontzean, atal ugari ditu orriak: Herriaren kokapena, Udalak, argazkiak, Kampina, hondartzak, kultura, kirolak...

Informatzeko eta dokumentatzeko balio duten atalez gain, badira denbora pasa-rako eta eztabaiderako beste-lako guneak. Gaztegunean, adibidez, musika trukatzeko MP3 artxiboak saretik ordene-nagailura nola jartsi behar di-ren azaltzen da.

Eztabaidea gunea ere jarri dute, eta dagoeneko sortu dira herritarren artean eztabaidea desberdinak. Kuriosoa da, es-terako, Orion bixigurik one-na non prestatzen den jakiteko sortu den eztabaidea.

HOBETU ETA BERRITU DAITEKE

Oriora.com web orriak, he-mendik aurrera, hobetu eta berritzeko aukera ematen du. Lan horretan, Udalarekin akordio batera nilegatu ostean, Ander Erguin bera eta Urtzi Garmendia (web orriaren logoaren egilea) arituko dira. Lehen dauden atalak hobetu edo berriak sortzeko —azken albisteen atala, esaterako— beraz, bimutillauengana joan beharko dute interesa dute-nek.

Web orri guztia osatzeko eta urtebeteko mantenimendurako, 600.000 pta-ko diru laguntza izan dute Iñigok, Anderrek eta Urtzik. KAR-KARA taldeak, berriz, 200.000 pta jasoko ditu orriaren edukiak landu eta betetzeagatik.

BERRI LABURRAK

Udaleko arkitekto plaza martxan da

UDALEAN lan egingo duen arkitektoa kontratazko prozesu administratiboa martxan da dagoeneko. Apirilaren 6an egindako plenoan onartu zuten aho batez enplegu plana; arkitekoak egun erdiz lan egingo du udaltxean. Pleno berean, arau subsidiarioak aldatzeko aholkularitza kontratatzea onartu zen.

Lan taldeak osatu dira festak antolatzeko

SAN Pedro festak antolatzeko pare bat bilera egin dira, eta, denen gustuko festak izateko, adinaren araberako lan taldeak osatzen erabaki da. Horrela, gaztekoentzako taldea datorren laruntzatean, hilak 28, bilduko da 18:00etan kultur etxeen. Gazteena ere kultur etxeen maiatzaren 2an 20:00etan; eta, bilera orokorra, aldiz, maiatzaren 7an 20:00etan baita ere.



BERRIETAKO ORDEKARIAK. Orioko eta Aiako alkateak parte hartu zuten kampainaren aurkezpenean.

Birziklatzeko kampaina

AIA, ORIO, ZARAUTZ, Getaria eta Zumaiako udalek osatzen duten Urola Kostako Udal elkartek *Bereiztea zare esku dogo, birziklatzea guztion esku* kampaina egin dute azken bi hilabeteotan. Informazio kampaina horrek herritarrei eskura dituzten gaikako bilketa-zerbitzuaren berri emateko eta edukiontziarera bota aurretek hondakinak behar bezala bereizten laguntzeko balio izan du. Kampaña herritar guztiengana iristeko, bi jarduera egin dituzte: batetik, eskualdeko etxe-guztieta eta esku orriak banatu dituzte, eta esku-orri

horien bidez herritarreketxeko 10 multikon-tenedoreen zozketan parte hartu ahal izan dute. Guztira 532 esku-orri jaso dituzte eta hauek izan dira zozketan sarrutakó oriortar eta aiarrak: Benedicta de Mingo Ortega, M. Carmen Ugalde eta Fany Alvarez.

Bestetik, ikastetxeetan lehiaketa egin da eta eskualdeko DBHko 4. mailako ikasleek logotipo eta maskota bana egin dute. Zarauzko Ikastolakoak izan dira irabazleak, eta aurrerantzean Udal elkartek erabiliko du beren logoa sensibilizazio kampainen.

ORIOKO OGIA
OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Tfnoa: 943 83 01 89

PORTU ERRETEGIA
Santio Erreka Auzoa, z/g
943 89 44 34
20809 AIA - ORIO

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Egurzoko menua
Askeburuetan emami beraria
Ogiarturak, plater klasifikatuak
GIBRO ONA!!!
ANTILLA JATEKOA
Berrioz zabalki!!!



INTSAIDAK EGITIN. Salatzokoak eta Harribilekoak Iñakaren aginduetara, jo eta su.

Badator balea

Balea bera eta antzerkia prestatzen ari dira herritar ugari

MAIATZAREN 12AN Azken balea, Juan Agirrek propio egindako antzezlana, antzeznuko dute hainbat herritarrek plazan. Testua gaztelaniaz idatzi du Agirrek, eta Olatz Elustondo aiarrak euskaratu du. Olatz Euskal Filologia ikasten ari da eta praktikak egin ditu Goenkallen eta Sorginen Laratzan euskara zuzentzaile gisa. Iñake Irastorza oriotarrak adierazi du, gainera, obra antzeztekoko garaian Orioko hizkera erabiliko dela.

Antzezlana prestatzeko, apirilaren 18an bilera bat egin zen, eta 25 lagun istorri ziren antzezlanean parte hartzeko prest. Azkar banan ziren rolak eta bi irakurketa egin zituzten aktore berrieik. Norberak ikasi beharko duena etxera eraman zuen, hurrengo entsaiora istorri baino lehenago ikasten ahalegintzeko. Agirre eta Irastorza arduratuko dira entsaioetaz gera-

tzen den denbora gutxián. Antzezlanaren azken zatian Harribil eta Salatzokoek hartuko dute parte eta hauek ere prestaketa lanetan ari dira.

Bestalde, baleari buruzko bertso berriak idatzi dituzte herriko bertsolariak. Salatxo abesbatzak kantatuko ditu bertsook herritarrekin batera.

Balea bera ere ailegatu da ia Oriora. Ortaikan laga dute, Bixentikorenenean, eta han edertuko dute hainbat herritarrek. Bertsoek diotren bezala 12 metro luze ditu eta hiru zatiak ekarri da herrira. Poliespan materialarekin egin du Oiartzungo enpresa batek.

Balea elkartekoak ere danborradarako entsaioetan ari dira jo eta su. 60 bat lagun osatu dira eta maiatzaren 12ko gauean aterako dira daniorra jocadera. Egun horretako programa osoa azken orrian duzue ikusgai.

BERRI LABURRAK

Argazkiak Salatxo tabernan

BENITO Canteroren kolorezko eta txuri-beltzko argazkiak usgai izango dira Salatxon maiatzaren 4a arte. Bergaratar argazkilariak atsegina dituen gaiak landu ditu argazki hauetan: mendia, paisajea eta kirola.

Pol-Pol Argazki Taldeko bazkide sortzaileetako da Cantero, eta Gipuzkoako Argazkilarien Elkarteko bazkide ere bai. Erakusketan parte hartu izan du Euskal Herri osoan, baita Londresen, Gotenborgen eta Lintzen,

XUGAk lehiaketa antolatu du logoa aukeratzeko

HERRIKO gazte asanbleak lehiaketa antolatu du beren logotipoa edo marraskia aukeratzeko.

Saria lau lagunentzako afaria izango da Kolon Txiki tabernan, eta Kolon Txikin bertan laga behar dira lanak maiatzaren 29a baino lehen.

Bestalde, maiatzaren 11rako Txuri Urdinera irteera antolatu du XUGAk. Izena maiatzaren 8a baino lehen eman behar da Kolon Txikin. 800 pta. ordaindu behar dira eta arratsaldeko 17:12etako trenean joatekoan dira Donostiarra.

GABON
Plater kombinatuak,
pintxoak eta txokolateak
Tel. 943 83 06 09

Itzala
Taberna
Karteten jokatzeko aprobosak
Tel. 943 83 12 59

LURDES
Txingidekin
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

iTZiAR
Kirolak
Tel. 943 83 31 03



MARTXAN BERRIKO. Zortzi urte itxita egou den fabrikak ateak irekiko ditu uztaidian lokal berrian.

Azkue Orio kontserbak

JABIER PUERTAS ARDURATUKO da Azkue Orio Kontserbak lantoki berriaz. Ana Azkue eta Miguel Puertas bere senarrak Orioko erriberan zuten fabrika itxi zuten 1993an eta negozioa Palentziara eraman zuten. Orain erabaki dute Palentzian atuna bakarrik landuko dutela eta Orion, berriz, antzoa. Horretarako saldu dute fabrika zaharreko lursaila eta frantses fabrikaren erdia erosi. Gureak elkartea erabiltzen ez duen zatia, alegia, 2000 metro karratu egokitu dute, bi plantetan eta, Jabierrek dioenez, *Oso toki ederra da, kamisoientzat sarbide ona*

baitu. Bestean, azkenean, kristoren urazoa zenden kamioi handiekin: obrak alde guztietan... gaizki ibiltzen ginen.

Momentuz, 12-14 emakume hartuko dituzte lanerako eta, dena ondo joanez gero, 22-24ra iristea espero dute, antxoak eskulan handia baitu. Asmoa da langileak urte oso rako kontratatzera, aurtengo uztalean hasita, jendeak ez baitu nahi noizbehinkako lana egin. Hasteko, lantegi berria pintatu dute kanpotik, baina barrualdean obretan daude oraindik, frantses fabrikako garaiko instalazioak aldatu gabe zeudelako.

HANDIK ETA HEMENDIK

IÑAKI MARTÍN

Antropologo

"Orioko armadoreek ez dute kontratatzera patro lanetarako familiakoa ez den inor."

CAMPUSA 01/04

IÑIGO FERNANDEZ

Ikasle

"Beste hermetako web orriak ikusita, gurea oso txukuna dela uste dut."

GARA 01/04/13

PATXI TXIKI

Margolaria

"Haurrak adin batetik aurrera errealsismoan sartzen dira eta helburua kopiatzea eta ongi egitea da. Bat-batekotasuna galtzen dute, eta hori berreskuratu nahi dut, zirriborro batekin berena den zerbait margotzea."

EL DIARIO VASCO 01/04/04

**TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA SL**
INFORMACIONES
Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
Email: imanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
Espana
ISO 9002

Esferoko bolbulo
AENOR kalitate ziurtagiriduna


REGGATO
Etxeko helatuak eta
kruasanak
San Nikolas, 17 Tíños: 943 13 17 47

**OLIDEN
HARATEGIA**
Eusko Gudari, 2
Tfnoa: 943 83 10 86

1 AUREGI
TABERNA
JATETXEA

Gozategi
enparentza
AIA
Gipuzkoa
943 830728
Mario Luisa Arruti

RAMIRO
943 83 10 48



GUSTURA.

Astean behin joaten da Ibon. Realarekin entrentzera, hainaz datarren urtetik arrera gebigotau joan beharko du.

FUTBOLA

Ibon Arruti 'Aldape' Realera

■ Realaren Txapelketako partiduan jende asko Antillan

DATORREN DENBORALDIAN ALDAPE baserriko Ibon Arruti, aurten Orioko Futbol Taldeko kadeteen mailan jardun ondoren, Realeko kadeteen taldean arituko da. Horrela jakinarazi diote Orioko Futbol Taldeko direktibari Realeko agintariak, lehengo hilean mutil honi egindako probetan *hitzabuenas* eman ostean. Muriel honek 14 urte ditu eta infantila da oraindik, nahiz eta aurten kadeteen mailan jokatu. Orain arte, Frantzisko Jabi Barrenechearen aginduetara aritu da; Barrenetxeak esan

digunez, azken hilabeteetan, lesio baten ondoren, asko zentratu eta gizondu da mutila. Ezkerraldean jokatzen du, eta doai fisiko eta tekniko onak omen ditu.

Bestalde, Aste Santuan, jubenilen Realaren Nazioarteko Unai Zelaieta txapelketaren partida bat jokatu zen Antillako zelaian. Real Madrid eta Osasuna izan ziren surrez aurre eta madrildarrek irabazi zuten 1 eta 0. Jende ugari joan zen partidua ikustera, herriarrak zein kanpokoak.

HARRIJA SOTZEA

Izetak ezin irabazi Aitzetari

JOSE Ramon Iruretagoiena, Izeta II.a, zen faborto apirilaren 8an Aitzetaren aukako apustuan, baina aia-rak ezin izan zuen mutrikuar gaztea mendean haratu. Izetak arroa bateko aldea eman zion, 12,5 kilo-koa, eta azkenean gehiegizkoia izan zen hira jasoldi gutxiago eman baitzituen. Aitzetak esan zuenez, berak plazan etxearen egindako lana egin zuen. Joxerramonen hitzetan, berriz, etxearen hamar bat jasoldi gehiago eman zizkion; hala eta guztiz ere, Aitzeta zoriondura eta sekulako lana egin zuela airtortu zuen.

MENDIA

Picos de Europara irteera maiatzean

TALAI-MENDI elkartea Picos de Europa irteera antolatu du maiatzaren 19 eta 20ko astebururako. Carresko zintzurni zeharkatze-ko asmoa dago eta mendizale guztientzat moduko irteera izango da. Izen ematea datorren astean zehaztuko dute eta karteletan jaitsita egongo da kalean.

**SOLOZABAL**
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1, ezk
telef: 943 83 08 12



ARRAUNKETA

Jubeninal eta infantilak nagusi bateletan

JOAN den igandean, bateletan Euskadiko Txapelketan jubenilak eta infantilak txapeldun izan ziren zarauztarraren eta zumaiarren aurrekin. Jubenilen batela Mikel Arnostegi, Unai Amenabar, Jon Lasa, Joxi Brit eta Ibon Berasaluzek osatu zuten. Infantilena, berriz, Iñaki Vegghe, Alex Urbietza, Iñigo Mujika, Gorka Eizmendi eta Josu Iribarrek.

FUTBOLINA

Futbolin txapelketa K2 tabernan

APIRILAREN 22an, igande arratsaldean, futbolin txapelketa antolatu zuen K2 tabernak. Bikote dezentekhartru zuen parte eta txapeldunak Iñaki Zinkunegi, tabernako nagusia, eta Fermín Lazcano izan ziren. Bigarren Rikardo Arregi eta Rakel Dominguez izan ziren eta hirugarren Igor Dorronsoro eta Imanol Garmendia. Irabazleek txapel bana eta afaria eskuratu zituzten, bigarren goek trofeo bana eta afaria, eta hirugarren goek trofeo bana baita ere.



TALDEPOSTA. Oso talde polita da Joakiniek aurten, beterunez eta goztoez matutakoa.

SASKIBALOIA

Aurten ere neskak primeran

SASKIBALOIKO NESKAK BIKAIN dabiltsa aurten ere; denboraldi osoan bi partidu bakarrik galdu dituzte eta azken fasean ez dute oraindik alerik galdu. Azken fase honetan zortzi talde, lehenengo faseko zortzi onenak, ari dira lehian eta Joakin Aranbururen neskak aurrena doaz sailkapenean. Bi partidu bakarrik geratzen zaizkie, eta ezeren okerrik ez dela lehenengo postuan bukatuko dute txapelketa. Datorren urteari begira, Joakiniek esan digu zalantzak dituztela hai mailaz igotzeko baita saskibalosan jokatzen jarraitzeko ere. Hainbeste

urte Zaraguetan jokatzen jardun ondoren, kirolegian jokatzeko gogoa omen dute, eta horrek ere izango du eragina azken erabakia hartzean garaian.

LAU ORIOTAR SUNNY DELIGHT TXAPELKETA FINALEAN

Bestalde, Donostian jokatu zen Sunny Delight hirukoteen saskibalo txapelketan, Ikerastola alebinak, DBH Ieko Unai Eizagirre, Odei Bergado, Hodei Urdangarin eta Iker Urdangarin finalean sartu ziren. Finala ezin izan zuten juxtu-juxtugatik irabazi.

K2
taberna

Zeuk bilatzen
duzun giroa!!

 **Zarautz**
AUTODESKOLA

Zarautz Zierrotia kalea 33-1, pk. 20.800
Orio Alba Letxondi 46 pk. 20.810
Zarautz 943 83 18 57 Fax: 943 83 33 47
Tel.: 943 83 83 719 e-mail: zarautzauto@euskalnet.com

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremontak
Tel: 943 83 12 36 Eusko Guindan, 5

Pelukeria eta estetika misioa



Tintegintzat, kolorezko erakustea
Biltzarrak, lantegiak, etxaldeak
Azkarra, maitagailua
Festak, desfileak
Tel: 943 83 31 76

DORRONSORO
JANARI DENDA

Areatzak, 37 20013 Eibar

AHOLKULARITZA
Fiscalia, laborala, kontablea
Eugenio Garmendia
ASEGURU ARTEKARIA
IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

GAZTEATEGI
jatetxea = logelak
Elkano auzoa
943 13 16 06
AIA-ZARAUTZ

NIRE HONETAN

Kukuak

Iende asko dabil txarponak poltsikoan sartu eta kukuaren zain dagoena, ea aurretan aberastuko den. Batzuek pensatzen dute kukuak zorteara ekartzen duela; baina hori dirudunentzat izango da, munduko aberatsak koadrila berekoak baitira beti. Hala ere, haueskundeak direla eta globalizazioa dela, abisua ematen diuet: kontuz kukuex!

Badakigu kukuak nolakoak diren. Kanpotik etorriko dira komeni zaienean, bertakooi esateko zer egin behar dugun eta zer ez. Ez dute errukirik izango. Nola edo hala, nahi dutena lortuko dute. Tokia hartuko dute eta gero guri esan ezamitutena landu eta zaindu beharko dugula. Tokirikez badago, daukaguna kenduko digute jarri nahi dutena jartzeko. Kukukumeak, gainera, sortu dituztenak baino kruelagoak dira. Kibia osoa haientzat nahi badute, ondo-ko txorikume guztia botako dituzte kabitik, kupidarikabe.

Indarra hartzan ari diren kukuak gero eta lan gehiago emango digute; eskaintakoa jan eta jan baino ez dute egingo. Hor ibiliko gara haien mugagabeko gogoa asetzan, guk sortutakoak galdu ditugula, eta kukuaren kapritxoaren menpe. Ea behingoz alde egingo duten.

Alde eginda ere, ez fidatu. Kukuaren umeak hain zituen espeziaren kabetara bueltatzen dira, aurrekoek egin zutenen egiteko. Adiegon, beraz, eta kukuetaz ez fidatu!

PAT COWIE

LTXERRI
Jatetxea

Tfnoa: 943 83 07 62

Konbertsioa da bakea

PELLO ESNAL

Gizarte bizi dugun egoera gatazkatsuak, asko gabiltza hitz erabakigarriaren bila. Bake bidean argi egingo digun hitza nahi dugu, bakearen atea zabaltzen lagunduko diguna.

Bilaketa honetan, ohartuak gara, dagoeneko, gatazka ez dela axalekoa, eta ez dela soilik politikoa ere, nahiz eta maila horretan gelditzeko arriskua dugun. Halako zalaparta datorkigu horrik! Bainaz. Gatazka ez da soilik politikoa. Ezta batik bat politikoa ere. Askoz ere sakonagoa baizik.

Duela hilabete eta erdi, Zaurautzen *Bakea oinarrizten* izenez antolatutako hitzaldietan, oihartzunak gaue galdu ziren Angel Lertxundiren hitz zurragarri batzuk. Hona hemen:

Oraindik aztertu, esplikatu, argitu ez dugun sekularizazio prozesu egundokoa izan genuen maitsu herrogeti urte. Bat-hatean, ordea, ideologiazko sekulako batzen garaien barne zuen ordu arte leizitzeren ikuskiera erlijiosoa betetako tokia. Ondorioak begi bistean daude. Erreferente espiritualak falta ditugu, eta espiritualak diodaman, geure burrua aberasten, gizaturreago egiten, lagunduko diguten erreferenteetan ari naiz...

Esaterako, zenbat kosta zitzaien ETari zuzeneko lehen hilketa erabakitzeari. Zenbat ordu eztabaidatzetan, kontzientziaren arabera aztertzen, gizon bat hiltzea zilegi zen ala ez! Bainaz zer nolako txalo-zaparrada jaso zuen ekintzak kontzientzi azterketa handirik gabe! Eta, denboraren joanean, zeinen zaharkituak iruditzen zaizkigun kontzientzia kontu horiek! Zer-nolako gainbehera egin duen balioen munduak! Zeinen erraz eraits dezakegun gure aurrekoek nekearen nekez eraikitakoa...

Baina balioen munduak ez ezik, gainbehera egin du egiazenak ere. Hain da hala, badirudi bi planeta ezberdinietan bizi garela. Batentzat egia dena, besteentzat gezurra da. Hitz bera



99

Hitz bera
darabilkigu, bakea,
hilketa gaitzesten
dugunok eta ez
dugunok errealitye
gutziz kontrajarriak
izendatzeko

darabilkigu, *bakea*, hilketa gaitzesten dugunok eta ez dugunok. Hitz bera, errealitye guztiz kontrajarriak izendatzeko.

Azken hantean, leize handi eta hirukoitzarri ari zaigu gizartea hondatzen eta hondoratzen: leize erlijiosoak, etikoa eta intelektuala. Gainbehera erlijiosoak elkarri zuen gainbehera etikoa. Eta krisi etikoak elkarri du intelektuala ere.

Baina ez dugu etsi. Eta horregatik gabiltza hitz erabakigarriaren bila. Hitz hori, ordea, aspaldi dago esana; erlijio-esparnua behinik behin, nabiz eta horkoa soilik ez izan: konbertsioa. Konbertsioa, buelta ematea, ziaboga egitea, erotik berrieta... norbere autentizitatearen ildotik.

Aurkitu berria dut liburu jakingarri batean ere, inoiz baino distiratsuago. *Metodo en teología* du izenburua, eta Bernard Lonergan egilea. Liburuak metodoaz dihardu: teología egiteko metodoaz. Bainaz bide egoki-egokiak irekitzen dizkie "bigarren mailako" zientzilegi-eta. Izan ere, itsuegi aplikatzen ditugu zientzia matematikoei-eta dagozkien metodoak, gizakia gai eta egile duten egitekoetan ere, objektibotasunaren aldarean utzita geure aburuak eta buruak. Seinaldu.

Lonerganek oinarritzotzat jotzen ditu, teología behintzat, konbertsio intelektuala, etikoa eta erlijiosoak. Bainaz teología soilik. Eta geure herrigintzan ere jai dugu, noski, bi lehenengo konbertsio horiek gabe behintzat.

Testuinguru horretan, esanahi bete-betea hartzen du Joan Mari Uriarte gotzainak Abendualdirako idatzia zuen "Eraberritza eta bakegintza". Pastorak; eta, zehatzago, bigarren atealdeko irizpide moralek eta "bakerako hezi" pasarteanaipatutako pentsaera kritikoa eta kontzientzia etikoa kontzeptuak. Nor geure burutik eta sakonetik hasten bagara leizeak ixten, errazago bideratuko ditugu gainerakoak.

Allianz-RAZ seguros
Allianz RAS
MARIKE ZALDUA
Assegurances
Ibañez, 10
behinolts
Tel. 943 13 47 60

PINTURAS
ASIER

-pintura lanak
-barnizaketa
-akutxillatua

Aitzpea kalea 2, 1º
943 83 46 13 - 629 43 81 55 AIA




Ruanda, gero eta okerrago

Berrogei urte inguru eman dituzte apaiz euskaldunek Ruandan misio lanetan. Udazkenean, Juan Kruz Juaristi zarautzarra eta Leonardo Esnaola lazkaotarra behintzat, behin-betiko bueltatzekotan dira. Isidro Uzkudun pasaitarraren hilketak, Ruandako egoera jasanezinak eta edadean aurrera egiteak eragin handia izan dute erabakia hartzeko garaian, eta irailean-edo, Gipuzkoako gotzaina hara joaten denean, itzuliko dira.

Martxoan Demetrio Esnaola, Ikastolako irakasle ohia, bere anaia Leonardo, Juan Kruz eta gainerako misiolari euskaldunak bisitatzen joan zen Ruandara. Gaztetan Demetrio bera misio lanetara joan zen hara, eta hura gero eta okerrago dagoela dio, etsipenak jota. 1994ko gerrate eta genozidioak sortutako zauriak irekita omen daude oraindik, eta ez da momentuz horiek sendatzeko botikarik antzematen. Juan Kruzi egindako elkarrizketa eta hango ume baten testigantza ekarri dizkigu, hango egoeraren isphilu.

TESTUA: DEMETRIO ESNOLA ETA RIKARDO UZKUDUN
ARGAZKIAK: DEMETRIO ESNOLA

**ESKOOLA ANAIK.**

Demetrio eta Leonardo, erdian atzean, ikasten ditugu bertako etsola batean ikastetza eta irakaslearekin; Orixatik eriamandako materiala ondo gozetsa dute oraindik.

1994ko apirilaren 16an, orain dela zazpi urte hain justu, hasi zen gerra Ruandan. Ugandatik, Ruandaren iparraldetik, gutxiengoa diren tutsi etniakoak indarrez sartu eta hutuen eskutan zegoen gobernu mendean hartu zuten.

Orduan hasi ziren hutuak —Ruandako %90— tutsiak erasotzen. Tutsiek boterea hartzutenean, ordea, hutuak baztertuak eta zapalduak izan ziren. Genozidio ikaragarria eragin zuen gerra hark, eta datu zehatzik ez baldin bada-

go ere, 800.000 bat pertsona hil ziren. Horrek guztia sortutako gorrotoan bizi dira ruandarrak oraindik; umezurtez jositako familiak, leporaino beteta dauden kartzelak, eraiketa eta mendekusak... Askatasun falta nabaria da ruandarren eta hemendik joandako misiolari eta kooperanteen artean. Urkudun apaiza hil zutenetik are eta handiagoa da hemenguek somatzen duten segurtasun falta.

Kartzeletako egoera ere lantza da, leporaino beteta daude eta; metro karratu bakotzeko preso bat dago. Kartzelen pare, badira bestelako zentro penitentziarioak ere. Erasun horiek gobernuak kartzela moduan erabiltzen ditzakete. Kartzela arruntetan janaria gobernuak ematen du, baina bestelako zentru horietan presoek ez dute jatekorik izaten. Fa-

miliakoak eta GKEak arduratzentz dira preso horiek elikatzeaz. Eguneroko jarduna da familia askotan beren senitariekoren bat jaten emateko kartzelara joan beharra. Mugina aldean, Gurutze Gorria ere arduratzentz dira preso horietaz, baina datozen hilabeteetan laguntena horiek emateari lagako diote; ez laguntzeko sosik edo baliabiderik ez dagoelako, Ruandako gobernu presionatzeko beste modurik ez dagoelako baizik. GKEek ez dute nahi Ruandako gobernu egoera honekara ohirtea —bere ardurak GKEek betetza, alegia— eta gogorra hadirudi ere, presoek jaten emateari utzik diote Gobernu presionatzeko.

Bestalde, desnutrizioa eta gaixotasun larriak —hiesa, batzere— sufritzen dituzte ruandarraskok. Ruandan 8 milioitik gora pertsona bizi dira, eta emakume ugalkor bakotzeko 6,3 haur izaten dituzte. Superpopulazioarena da, aldi berean, konpondu beharreko beste arazoia. Hango emakumei ez zaie buruan sartzen une gutxiago izatea komeni denik. Ikasketak dituzten emakumeek hobeto ulertzen omen dute arazoa, eta kontzientziatuagoak daude haur gutxiago izateko. Egia esan, Ruandako egoera ez da goiztik gauera konponduko; gainera, konponduko bida, konpondzen hastea lortu behar da lehenik.

**NSHIMIYIMANA**

Misioen eskoletako ikaslea

Nshimiyimana da nire izena. 13 urte ditut, Eskolatik 6 kilometrora bizi naiz, Runda izeneko auzoan. Umezurta naiz, ama eta aita 1994ko gerran hil zituzten, Ruandako genozidioan. Orain amonaren etxearen bizi naiz 5 seniderekin batera.

Beste haurrak bezala, ni ere eskolan hasi nintzen; baina lehenengo maila bukatu nuenean, kanpoan utzindutzen eskola ordaintzeko dirunk ez nuelako [Ruandan eskolaumeeek hiru hilabetetik behin 50 pta ordaindu behar izaten dute].

Amonarekin ez nintzen ondo konponzten, eta egun batean Kigali hiriburura ihes egin nuen. Bertan pasa ditut urte batzuk: kale gorrian lapurretan, drogak hartzen, eta ahal genuena jaten... etxerik gabe [Moyibobo izenez ezagutzen dira haur hauek Ruandan].

Egoera honen aspertuta, herrira itzuli naiz, eta misioak duen haur eskolatugabeen eskolan hartzutu naute. Goizero ura ekartzera joaten naiz mendi zulo batera, amonak jatordua prestatzeko ura izan dezan. Gero, eskolara etortzen naiz oinez. Hemen, goizeko lehen ordutan, irakurtzen eta idazten erakusten digute. Nekazaritza ere lantzen dugu; eskolan baditugu untxi batzuk eta horiek hazten ditugu, gero etxearen ere berdin egin dezagun. 14:00ak aldera, eskolan prestututako jatordua jaten dugu: babarrunak, patata, boniatoa... Arratsalde erdi aldera etxerako bidea hartzen dugu, hemen 18:00etarako iluna baita. Etxean amonari lagundu ondoren, 19:30ean oheratzen naiz.

Jai eguna etxe inguruaren pasatzen dugu. Denbora gehiago dugu jolasteko; eta etxearen lagundu eta gero, futbolean ere aritzen gara platanoaren hostoz egindako baloiarekin.

ABOTEGIAN. Mungian Juan Kruzek jarritako oroztegia dingu argazkikoa.



JUAN KRUZ JUARISTI

Muginako apaiz misiolario

'Hirugarren mundukoak beren errealtateaz jabeaztea litzateke gure lana, errealtate hori gero eta ustelagoa baita'

Nola gogoratzen dituzu, Muginako txoko honetako, Orion apaiz bizi izan zenituen urteak?

Orion egin nituen lehen urteak guztiz atsegina izan zirela aitortzen dizut. Idealismoak alde batetik, eta garaia hantekoa apaiz ugaritzenak, besterik, Ruandarantz begira jarri ninduten. Orioko gaztetxoekin lan egiteak eta berekin lotura eskuak izateak asko lagundu zidaten Ruandarrei giza laguntza eskaini eta herri honetan integratzeko.

Urteek ematen didaten heldintasunaz, nire maitasunak beroena eta samurrena opa diot Oriori Muginatik.

Geroztik, bisitatu izan gaituzu oporretara joan zaren bakoitzean. Nola ikusi duzu Orio?

Orio nortasun handiko eta bere izaera harro sentitzen den herri moduan ikusi dut beti. Fisikoki herri indartsua, itsasgizonen tradizio sakratuen jarriztale leiala eta modalitate guztiako arraun kirolean txapel-dun eta garaile. Arraunketan ez ezik, kultur identitateko errejator eutsi dio Oriok aro modernoari dagokionez. Erabat txunditura jarraitu ditut urruntasun honetatik, Oriok, azken urteetan, eman dituen idazle eta artearekin loturiko hainbat pertsona.

Urte mordoxka Muginako misio honetan, 37 bat bai. Bizitza osoa ruandarrei eskainia. Konta iezaguzu pixka bat zure lana.

1965. urtean Ruandara etorri ginenean, kristau ko-

presa goraka zihoanez, parroquia nagusia beste parroquia gunetan desentralizatu genuen bertako eskoletara, katedralko konventuera, errazago iristeko. Eskolak eta ambulatorioak gune hauetan eraiki eta martxan jarri ditugu. Gaur egun, berriz, giza garapenean leporaino sartuta gabilta, nekazaritza eta abeltzaintza kooperatibak sortuz.

1994an gerrak eta genozioak gure lan guztiek pikatara hota zituen. Ruandar gehiengoa kristau erlijioan hezia izaki, gure porrotaren impresioa are eta handiagoa izan zen. Bestalde, gaur egun agintariekin ez diote batere babesik ematen elizari, misiolariak indar kolonizatzaileekin parekatzen gaituzte eta.

Hala ere, gure lana ez da hirsean geratu. Hor dira, leku bizi, erakuntzak; esko-lak, bilera eta kultur aretoak, elizak, ospitaleak eta ahar.

Horren gainetik, fruitu ugari emango duen hazia edota orca indartuko duen legamia gisa, gure bizitza osoa dago. Eta horrek hui, asabetezten gaitu eta harrotzen.

Gatazka politikoaz gain, herri honen sufrimendua ere bizitzea tokatu zaigu azken urte hauetan, gertutik, eta inguruko beste herriekin batetan sufritu izan dituen hainbeste miseria eta gatazka konpartitzen ahalegindu gari. Desberdintasunen, injustizien eta aberastasunen banaketa okerren aurrean sensibilizatuago eta markatuago uzten zaitu.



Zer diozu Ruan-daren geroari buruz?

Ruandaren geroa Afrika osotren etorkizunari lotuta dago. Afrika ekonomikoki noiz haziko zain gau-de. Ruandan, berriz, bakoitzak bere etniarieusten

dion bitartean, ez da sekula tutsi eta hutuen arteko gatazka konponduko. Etorkizuna ez da etnia, arraza edo odol desberdinak erorrik, ruandar kontzientzia komunitik baizik.

Garrantzizkoa izan al da Ori-Zautz GKEaren diru laguntza? Badakigu nahikoa ez dela, baina zerbait goxatzeko balio al du?

Diru laguntza hori premiazko da, eta solidaritate proiektuan kokatu behar da. Hilero Muginako 700 ume-zurtzek jaso duten laguntza solidaritate eta eraginkortasun eredu bizia da.

Ori-Zautz elkarteak hor egon da beti, ongizateko bes-te hainbat proiektutan ere, hala nola: behartsuen etxegintza, nekazaritza eta abeltzaintza proiektuetan, landare mitxegiak sortzen, abereen mai-leguetan...

Zer kontzientzia maila ikusten duzu Europako Afrikako herriei begira?

Lehenengo eta hirugarren munduaren arteko antildegia gero eta handiagoa da. Europan egin beharretaz eztaba da hutsaletan galdu beharrean, hirugarren munduko heren errealtateaz jabe araztea izango litzateke gure lana, erreali-

tate hori gero eta ustelagoa bihurtzen ari haitz jauntxokeriak, batzuen bestean ganako tiranizazioa, ustelkeria...

Balore unibertsal batzue-tarantz begiratu behar dute: demokrazia, giza baloreak, as-katasuna... Zientzia eta teknologia lorronetan ere bideak urratzen saiatu behar dute.

Herri honek arazo larriak ditu: superpopulazioa, pobrezia, miseria, espesialitateko egoera, gosea, hiesa eta gaixotasun guztiak, ziurtasun falta eta abar. GKEen laguntza ez al da galtza zaharrei adabakiak ipintzea? Partxoea, alegia?

GKEak behar-beharrezkoak dira premia puntual batzuek asetzeko. Egia da, sarritan nork bere ospea lortzeko lehiaketa hizta bihurtu direla erakunde horiek.

Ori-Zautz GKEak, izen handirik gabek, era apalean, premia zehatz batzuei erantzuten ari da, erdibidean ezertxo ere galtzen ez dela, eta %99 behartsuei zuzen-zizten iristen zaie.

GKEek ez dute arazoaren muina konponduko; baina, misiolarietan eta zenbait pertsona desinteresatuek lagun diezaiekete egoera nolabait goxatzzen.

Bukatzeko, zure bizitzaren aldi luze honen emaitzak argi eta garbi ageri dira. Hemendik aurrera, zer?

Ez gaude kreatze lanetan eta erantzukizun kargu berriekin murgiltzeko sasoian, atsedenaldia hartzeko haizik. Baina, bizi garen tokitik, heti jarraituko dugu herri honi laguntzen.

AIAKO berri



IDI PROBAK. Horrelakorrik ez dugu erdingoz ikusterik izango.

Idi demak debekatuta

■ Abereen bankaminagatik ezin da idi probarik jokatu.

AZKEN EGUN HAUETAN notizia bihurtu den abereen hankamina izeneko gaitza dela-eta, ez da idi probarik jokatzerik izango. Gaitz honek, etxabereak (behi, zaldi, zerr...) eta chizko ugaztunak (orkatz, orein, basurde...) kal-letzen ditu. Gaitzari aurre egiteko Eusko Jour-
laritzak eta Foru Aldundiek martxoaren 1ean osasun prebentzio eta neurriak martxan jarri zituzten. Hasiera batean, neurriak martxoaren 26a bitarte izango zirela zehaztu bazeen ere, apirilaren 4an mugarik gabe luzatu dituzte; hots, agindu berriak izan arte. Prebentzio neu-
rriekiko bat, hausnar egiten duten abercen,

zerrien, zaldien... bilketa debekatzea da. Eta eragin handia izan dezake, besteak beste, gunadu ferietan eta idi probetan.

Dagoeneko Aian jokatzekoak ziren bi idi apustu bertan behera geratu dira. Lehenengoa martxoaren 31n, Aiako Zalbardin eta Errrente-riko Irarretaren artean jokatzeko zen. Beste apustua apirilaren 21erako iragarria zegoen, Aiako Erreizta eta Oikiako Epiolaren artean eta hori ere ez zen jokatzerik izan. Aiako Asen-
tziotako ferian ere eragina izan dezake erabakiak, aurretik neurriak indargabetzen ez badi-
ra behintzat.

Taxi bonoak

AURREKO zenbakian azal-dutako notizia argitu nahian, esan behar dugu Aiako Gizar-te-Zerbitzuak honoak doan han-natuko diruela taxi zerbitzua erabiltzeko. Bonoak lortzeko baldintzak, aurreko KARKA-RAn zehazten ziren. Hala ere, informazio gehiago nahi duenak udaltxera jo dezake, edo 943131144 telefonora deitu.

Megalitoen babesea

ARANZADI Zientzia Elkar-teek, monumentu megaliti-koak seinaleztatu eta babes-teko egitasmo bat lantzen ari da. Aian hamabi megalito daude sailkatuta; gehienak, Pagoeta mendi inguruan: Arre-tako tumulua, Olartetako trikuharria... Udalaren lana aipatutako ondareak babestea eta zaintza litzateke Aranza-di ZERen laguntzarekin.

Aste Santuak

AIAKO nekazal turismo eta ostatuetan jende ugari izan da. Bisitari gehienak bizkaitarrak eta katalanak izan dira. Pagoeta Parkean ere bisitari ugari izan da; Iturraranen 590 bisitari eta Agorregin 830. Jate-txeetan ere somatu da jendea. Eguraldia ere lagun izan da kanpotar eta bertakocentzat.

**INAZIO MANTEROLA ETA SEMEAK
ARRAINA ETA MARISKOA**

Ubegun ausea AIA • Telfs. (943) 13 10 09 • Fax 13 39 52
8 postkutxa • 20810 ORIO

JATETXEA
KANUA
RESTAURANTE

Gezategi Espancarria, 11 - AIA
Tlf. 943 83 43 22

Bertako habarrun eta horagak
Elsekiko sukaldie gosoa eta alsegina
Hainurrezko menu berezio eta jolaslekuak

BITTORI ALBENIZ, ARGIN LANDA-TURISMO ETXEKOA

'Paisaiarekin barritzen dira kanpotarrak'

Arginen bederatzi urte daramatzate kanpotarrei lotarako zerbitzua es-kaintzen, eta orain artean oso gustura dago Bittori. Arginera datozenak zoratzen geratzen omen dira, ataritik ikusten den paisaia ikusita, aurrean itsasoa eta inguruau basoa dituelako.

GARBIÑE AZPIROZ

Noiz hasi zineten landa turismoarekin?

Bederatzi urte beteko dirugu udan Arginen landa-turismoa ipini genuela. Aian zaharrenak Sagarmanetakoak eta gurea izango dira, uda berean irekitakoak. Aian ireki zen lehenengo landa turismoa Hugun izan zen, baina orain bi edo hiru urte itxi egin zuten.

Nondik nora bururatu zitzaiuen?

Gu baserri zaharrean bizi ginen eta derrigorrean etxe berria egin beharrean geunden. Etxe berria ia egina genuela, Nekazaritza Ganbara bulegoan eman zigutene honen guztia berri, eta aurrenetik oso seguru ez bagendu ere, erabakia hartu eta aurrera egin genuen.

Aldaketa handia izan al zenuten bizitzan?

Handiegia ez, zeren eta gurera etortzen den jendea ez da urte guztian etortzen, denboraldi jakin batzuetan bai-zik, eta ez du horrelako aldaketa berezirik sortu. Gai-



ARGIN LANDA-TURISMOA. Bittori here baserriko ataria.

nera ofiziosa zertxobait ezagutzen nuen: *Hotel San Sebastián*en aritua nintzen lanean eta banuen lanaren berri.

Lehendabiziko bezeroak gogoan dituzu?

Bai, flamendarrak ziren, oso jatorrak, hain ere pozez zoratzen geratu ziren. Gero, Asturiasera joan ziren eta, ostera, etxerakoan berriro gulean geratu ziren. Harrezke-ro postala ere bidali izan digute.

Nondik etortzen da jendea?

Hasierako urtetan etorriko guztia hartzen duzu; baina, gerora, aldez aurretik leku gordezen dutenak harren dituzu. Euskaldun asko etortzen da, eta baita Katalu-

nari, Zaragozatik, Madrilatik, Zeelanda Berritik, Brasil... harrituta geratzen gara nola aurkitzen gaituzten ikusita.

Nongoak dituzu gustukoenak?

Denetarik dago, Kataluniakoak eta Madrilekoak jendea ona iruditu zait. Gehienetan, zoritzarrez, bertakoak dira okerrenak, narratzenak eta zaharrenak.

Zer gustatzen zaie datozenetan?

Gehienbat janaria, txuleta eta arraina; paisaiarekin ere harrituta geratzen dira, hemengo basoekin eta berdetasunarekin; klima oso sanoa daukagula diote, nahiz eta eu-

ria egin. Udan mantarekin lo egitea asko estimatzen dute.

Zer bisitatzen dute?

Batez beste host bat egunetako egonaldiak egiten dituzte landa-turismoetan eta denboraren arabera banatzen dituzte bisitak; Kostaldea, Donostia, Hondarribia, Biarritz, Hendaia, Guggenheim, Pagoeta Parkea, Arantzazu... Guk ere, bisitatzeko tokia edota jatetxeak aholkatzen di- zkiegu.

Atzerritarrekin moldatzen al zara?

Nire semia dagoenean bera moldatzen da ingelesez, eta bestela, nerori ahal den beza-la keinuak eginenez moldatzen naiz. Gainera, hitzen bat beti jakiten dute gaztelaniaz, eta era batera edo bestera moldatzen gara. Inoiz ez naiz geratu inorekin ulertu ezinik, nahiz eta askotan gehiago adierazi ezinik geratzeak pena handia ematen didan.

Noako impresioarekin joaten dira?

Gaur egun, batzuek beldur pixka bat ekartzen dute; baina, eginez egun, lasai ibil daitzekela konturatzen dira. Etxerakoan oso irudi ona eramatzen dute. Jende atsegina eta jatorra aurkitu dutela eta horrelakoak esaten dituzte. Arazorik ez dutela inon aurkitu eta harrituta joaten dira.

Jendeak errepikatzen al du?

Batzuek bai; adibidez, Zaragozako familia bat, ireki genuen urte beretik bederatzi urteetan huts egin gabe etorri dira, ia familiakoak dira. Beste batzuk, aldiz, ez, eta oso normala iruditzen zait toki berriak ezagutu nahi izatea; neronek ere hori egingo nuke.

Direnak eta ez direnak

JOSU SAROBE ETA URKO ALDALUR

Oporrak iritsi bezain laster jendea herritik kanpora joaten da. Bainaz ez dugu ulertzen zer dela eta, herrian horrelako toki ederrak eta igerilekuak edukita! (Hori bai, eguraldi hotza dagoenean ez etorri igerilekura! A zer hotza bestela). Hala ere, ez gara bakarrik geratzen, nahiz eta Euskal Herriak fama honik ez izan politika kontuagatik eta... jende asko etortzen da kanpotik Aia herri txikia izanik, (badakigu polita dela, baina horrenbestera ino e!) Agian bertan dauzkagun behi sanoengatik izango da, zeren eta pentsatuko dute hemen ez dagoela "behi ero" edo horrelako gaitzik, edota, bestela, aparkatzeko arazorik ez dagoelako izango da, eta hori egia da.

Bestalde, Aian bezala ez da inon jaten, bertan dauden tabernak sekulako martxan dabilta eta.

Baita parke eta futbol zelai bat ere, gainera saskibaloirako bi pista eta teniserako beste bat ditu zeliaiak. Horietaz aparte

frontoi ederra eta gorpuzkak lirain eta gihartsu edukitzeko gimnasio eder bat, bere masaje eta saunarekin.

Hona, denetarik etortzen da: umeak, gazteak, edadetua, estresatuak... azken bi haventzat badauude hainbat toki egun pasa ederra egiteko, esaterako: Laurkingo eta Iturrarango parke naturala eta Agorregiko burdinola, besteak beste. Ume eta gazte jendearentzat, berriz, badira herrian denbora pasatzeko toki politak. Eta jakina, familia osoa egun batzuk pasatzeko asmoz etortzen bada, landa turismo ederrak dituzte zain.

Horrelako martxa dugu ba gure herri polit eta txiki honetan. Egun eder bat pasatzeko asmorik baduzue, Aiara etortzea besterik ez duzue. Plan ederra, ezta?

A, por cierto, ez pentsa gure herriak dena ona duenik e! Bere alde txarrak ere baditu; baina, tira, beste batean kontatuko dugu.

AIAKO DIAKO ETA JENBEAK



GORPUTZ EGUNEKO BIDEAN

Argazki honek 60 urte inguru ditu. Antzematea erraza ez badu ere, bidea egun Goiko parkea izenarekin ezagutzen duguna da. Prozesioaren ibilbidea hauxe izaten zen: eliza atzetik Leandroren zerraino; hortik goiko errepidera irten, eskuinera joan, Zerran biratu, Argurutzen gelditu eta gero plazaraino joan J. Aldalur eta F. M. Ibarroki txistulariek 'Marcha Real' jotzen zuten bitartean. Elizgizon eta emakumien artean: D. Severo, D. Juan eta D. Hilario, *madre* Javiera eta *hermano* Josefina. Umeen artean Sagraria Aguirresarobe, Alicia eta Belén Aurizenea, Manolita Telleria, Miren Azpiroz, Inazio Telleria, Inazio Zuloaga...

**BAR JATETXEA
OLiDEN**

Menú Diario • Comuniones
Bodas • Reuniones Sociales
Egunañako Menú • Jantziak
Ekontzak • Bilketak

Ortzaiza Avanza • 20810 ORIO
Tel. 943 13 34 51 - 943 83 08 83

AUTDAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefonos: 943 13 04 38

ITB

Bisagaren Industria Teknikoa, S.A.

Era guzienako bisagrok
Kozaletan gordetako bisagrok
Krizaleko otsen bisagrok
Bisagra automotivikak, etc.

Av. Industrialdako - 20810 Aia (Gipuzkoa)
Tel. 943 83 03 08 - 290 Oficinas - Telefono 943 13 38 62

IKASLEAK

idazle



EIDER IRIBAR

Pozgarria eta aldi berean tristea

Aurten ere, urtero bezala, Gasteiz tikitorni den Korrikari ongi etorría eman zaio, eta, bide-etenik gabe, segida eman ere bai.

Aste baruan hainbat ekintza egindira Korrikaren alde. Noski, ekintzak egin ahal izateko lan handia egin behar izan dute. Beraz, hasteko, hauetako txalotu nahi nituzke. Harrigarria da jendeak bere hizkuntza defendatzeko egiten duen lana. Baita ere, egia da ekintza hauetara hurbildu den jenderik gabe ekintza horiek ez zirela ezer izango. Ondorioz, hauen jarraira ere txalotzekoa dela iruditzen zait.

Hala ere, benetan tristea iruditzen zait euskararen alde. Korrika bezalako ekintzak egin beharra. Alde batetik, oso positiboa iruditzen zait egiten den lana hizkuntza bultzatzeako, baina bestalde, oso tristea. Zergatik ez ote gara gai; honelako ekintzarik egingabe, gure hizkuntza, euskara, aurrera ateratzeke? Nire ustetan, euskaldunon hizkuntza aurrera atera nahi badugu honelako jardueran lan egiteaz gain, jende askok bora aldatu behar du, eta gaztelaniaz hitz egin beharrean, euskaraz hitz egin.

Hori guztia dela eta, hemendik aurrera euskaraz gehiago hitz egitea espero dut, eta ondorioz Korrika egiteko beharrak ez izatea. Baina, hala ez bada, ea hemendik bi urtera ere aurten bezala Korrika egiten dugun.

Revista
de Estudios
Marítimos
del País Vasco

memoria

Euskal Herriko
arrantza



ITSAS MEMORIA, gure memoria

Donostiako Untzi Museoak kaleratu berri du, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, 'Itsas Memoria' ikerketa aldizkari mardularen zenbaki berri bat, hirugarrena. Zenbaki horretan Euskal Herriko arrantza aztertu du eta gaiari buruzko artikulu sortaren artean Orioko arrantza da bi ikerketaren protagonista (biak gazteleraz idatziak). Alde batetik, Extremadurako Unibertsitateko Juan A. Rubio Ardanaz-ek pasa den mendelean arrantzak Orion izan zuen bilakaera aztertu du, Ramón Solaberrieta 'Erramolino'-ren testigantzan oinarrituta. Ez da garai hartako arrantza zehatz-mehatz aztertzen duen ikerketa zientifiko, Ramón Solaberrietaren bizitzaren zertzelada bizi eta interesgarriek margotutako arrantzaren eta garai bateko bizimoduaren (arrauna, soldadutz, erretiroa) koadroa baizik. Testigantza interesgarria da Ramón Solaberrietaarena, oraindik bizirik dauden beste hainbat zaharrenaren moduan, memoria bizia dira, galdu aurretik jaso eta gorde beharrekoak. Testuaz gain, garaiko argazki zuri-beltzek koloreztatu egiten dute artikulua.

Bestetik, Iñaki Martín Bermejok Orioko arrantzaren teknologia, kultura eta antolaketa-ren bilakaera eta etorkizuna aztertu ditu. Aurrekoan baino azterketa zehatzagoa eta, neurri batean, 'hotzagoa' da, baina hura bezain interesgarria, Ramón Solaberrieta esanak datuekin eta azalpenekin osatzen baititu. Bi ikerketak elkarren osagaiak dira, oso interesgarriak garai batean herriko bizimoduaren ardatza izan zen arrantzaren ezaugariak eta bilakaera ulertzeko.

JAKES GOIKOETXEA



ERREZETA

PLATANOZKO BAVAROISE-A

OSAGAIAK

- 3 zuringo
- 150 gr azukre
- 100 gr ur
- 300 gr platano
- limoi baten zukua
- 10 gr jelatina
- 3 dL esnegain 3/4ra montatua

Merengue italiarra: zuringoak elur puntura eraman. Azukre eta urarekin almibar bat egin hari bigun puntura. Zuringojei almibarra gehitu hari fin batean, barrilaz etengabe eraginez. Jelatina uretan bigundu. Platanoarekin pure bat egin. Purea merengearrekin nahastu. Esnegain pixka bat berotu eta bertan jelatina desegin. Pure eta merengue nahasketari gehitu. Guztia esnegainarekin nahastu.

XABIER ATORRASAGASTI

Orain dela 25 URTE

1976ko martxoan eta apirilean

ASTE SANTUA, ERLIJIO KUTSU HANDIZ

Orain dela hogeita bost urteko martxoko albiste nagusia Gasteizen hildako bost langileak izan zen. Apirilean, berriz, Segovlako ihesa izan zen. Apirilaren bostean ETAko 25 ki-dek ihes egin zuten Segoviako kartzelatik; hurrengo egunen, baina, zazpi ezbete guztiek berriro ere kartzelan ziren, guardia zibilek harrapatu egin baitzituzten. Gure artean zeresana piztu zuen beste albiste bat Berazadien bahiketa eta hilketa izan zen. Anjel Berazadi martxoaren 18an bahitu zuen ETAPM-k eta handik 20 egunera, apirilaren 8an, hil. Horietaz gain, aipatzeko da guretzat orain bitxia defako, gutxieneko soldatua 345pezetakoia izatea erabaki zutela.

ASTE SANTUA

Ostegun Santua apirilaren 15ean tokatu zen, baina elizkizunak ez ziren egun horretan hasi. Astelehen Santuan, goizeko zortzi eta erdieta meza izan zen arrantzaleentzat. Astearte Santuan, arratsaldeko zortzieta, langileen-tzat eta Asteazken Santuan, berriro ere goizeko zortzi eta erdieta, baserritarrentzako meza

Ikusmin handia piztu zuen Jose Inazio Saizar eta Jose Mari Lertxundiren arteko harrijasotze apustuak

izan zen. Ostegun eta Ostirial Santuan, berriz, era guztietako elizkizunak izan ziren. Oringo ikuspegitik bereziena, umeentzat bi funtzio iza-tea, bata mutinentzat, eta bestea neskentzat.

HARRIJA-SOTZE-APUTSUA

Martxoaren 21ean Azpeitiiko zezen-plazan harrija-sotze-apustua jokatu zuen Aiako Olaberri Zaharra baserriko Jose Mari Lertxundik eta Orioko Luzarbe Erdiko Jose Inazio Saizarrek. Haientzuek halako bi zuen harri kubikoezin heurtu zuten indarra. Orioarrak irabazi zuen, jendeak espero bezala, eta dirua ere bere alde zegoen. Lertxundi 140 kiloko harriarekin jardun zen, behar baino bi kilo gehiago, 69 kilo pisatzen baitzen, eta Luzarbe 124koarekin, bere pisua 62 kiloak zelako. Seina minuti luzeko hiruna tanda egin zituzten. Orioarrak 27 jasoaldi egin zituen, aiarak baino hiru gehiago, eta jokoan zeuden 100.000 pezetak gehi sarrerek ateratzen, behin gastuak kenduta, poltsikoratu zituen.

JAIOTAKOAK

- Ane Arruti Agirre, Orion, martxoaren 9an.
- Lourdes Sarasua Ramos, Orion, martxoaren 26an.
- Aitor Freire Lizaso, Orion, apirilaren 3an.
- Iker Amilibia Duran, Orion, apirilaren 6an.
- Manex Albeniz Pagadizabal, Aian, apirilaren 14an.

HILDAKOAK

- Jose Maria Unsain Arruti, Aian, apirilaren 5ean, 85urte.
- Ignacio Urdangarin Solaberrieta, Orion, apirilaren 21ean, 71urte.

EZKONDUTAKOAK

- Celestino Urruzola Aburuza eta Miren Nekane Arribalaga Manterola, Aian, apirilaren 7an.
- Joaquin Iraola Elosegi eta Garbiñe Arrillaga Albeniz, Aian, apirilaren 7an.
- Carlos Martin Crespo eta Maria Eugenia de Frias Martin, Orion, apirilaren 7an.
- Luis Mari Ibañez Villar eta Aroa Sarasua Alberdi, Orion, apirilaren 7an.
- Jose Ignacio Udabe Korta eta Elisabeto Etxezarreta Atxega, Orion, apirilaren 21ean.
- Fernando Bravo Betera eta Idurre Telleria Gaztañaga, Orion, apirilaren 21ean.
- Jesus Maria Manzanas Ruano eta Nerea Beldarrain Hernandez, Orion, apirilaren 21ean.

ZORIONAK



Inaki

**MAIDER SOLABERRIETA
ETA LORENZO
OIARZABAL**
martxoaren 3an
ezkondu ziren Orion.
Izan ere, Maider
oriotarra da eta Lorenzo doneztebearra.
Eztei-bidaia Orlandon
eta Dominikar Errepublikan egin ondoren,
Doneztebera joan ziren
bizitzera.

ZORIONAK

Gazteek kirola egiteaz arduratzen direnei

Arraunlari gazteek hasi dira banderak irabazten. Arraten eskubaldia jokatzen duten gazteek bikain dabilta, soñoleko neskak txapelketan murgildu dira... alegia, sasoian daude gure kirolari gazteak. Halere, orangoan urte osoa gaztchoriek entrenatzen eta zuzentzen aritzen direnak zoriondu nahi ditugu. Beondeieila!

Rosa ARRUTI



'Bizitzak berak konpontzen ditu gauza asko'

Rosa Arruti familia artean bizi da, pazik eta lasai. Urte zailak ezagutu zituen gazteagoa zela, baina aurkitu du gustatzen zaion lanbidea eta asebetetzen duen filosofia. Gaur, gauza material gutxi bebar du bizitzari zentzua emateko.

Nota hasi zinen altzariak zaharerritzen?

Horrelako muebleak beti gustatu izan zaizkit, baina ez nekien ezer egiten. Ezkondua nengoela, lana gizonarekin egiten nuen, baina zerbaitek esaten zidan altzariak zaharerritzen ikasi behar nuela, eta horise egin nuen Bilbon hartutako ikastaroan,

Geroago lanbide bihurtu zitzazun?

Bai. Senarrarengandik apartatu nintzen, lana ere bukatu zitzaidan eta horrela hasi nintzen altzariekin. Bakarrrik egitea zaila zenenez, Gurutzte, nire koinata, hasi zen nirekin ikasten. Zortea izan genuen, lokala genuelako baserrian. Gero ikastaro gehiago egin ditut eta familiak asko lagundu dit. Ikarragarri gustatzen zait lan hau.

Lan asko dago?

Inor ez da aberastuko lan honetan, baina jendeak gero eta gehiago apreziatzen ditu altzari zaharrak. Lehen botatzen zituzten pipia agertzen zenean; orain ez, erraza baita egurra tratatzea. Gero, zaharerritze lana egiten dugu kapak kendu, garbitu, tintatu, konpondu. Dena partikularrentzat egiten dugu.

Iaz, Santiago Bidea egin zenuen. Nolatan?

Gazteago nintzela bihotzik operatu ninduten eta pena hori baneukan: ezin izango nuela horrelakorik egin. Gero, osasunaz oso ondo jarri nintzen eta iaz Santiago Bidea egiteko aukera izan nuen. Lagun batetik egin nituen 800 kilometroak oinez, Orreagatik Santiagoaino. Ikaragarria izan zen: 28 egun zoragarri.

Ez nuen sekula uste motxila hartu eta hori egingo nuenik.

Eta sahararrekin izan duzun harremana?

Umezalea naiz eta izan nuen ume bakarra hil zitzaidan. Saharako umeak ekartzeko kartela ikusi nuenean bat-bateko erabakia hartu mien. Bi etorriz zitzazkidan eta, basieran arazoak izan bagenituen ere, gero, oso ondo joan zen. Aurren juan naiz biak ikustera eta konturatu naiz oso importantea dela bai guretzat bai hango familientzat, guere hara joatea. Berriro hartzekotan, umeberherak hartuko nituke, berriak ez. Lan asko eskatzen dizu berriro zerotik hasteak. Nahiago nuke bi horiei segitu laguntzen, etortzen ez badira ere.

Betidanik sentitu dut lagundu behar dudala. Niretzat oso importantea da. Pentsatzten dut zortea izan dugunok oso gutxi garela, eta horregatik, hain zuzen ere, egin behar dut zerbait. Bizitzeko behar dut, bestela ez naiz ondo bizi. Ez dut bizitzaren sentidurik aurkitzen,

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Orain dela gutxi arte gauza gehiago egiteko gogoa nukikan, eta ez diot beldurrik gauza berriak egiteari. Konfianza latxa dut bizitzak berak konpontzen dituela gauza asko. Denbora hartzen dut neure burnari galdezko gauza zergatik eta zertarako diren. Yoga egiten dut. Eta azken garai honetan konturaz ari naiz lana ere ez dela importanteena. Hau egin edo bestea egin, herdin zait. Gauza gehiago egiten baino beharrak gutxitzen joango maiz, helburu handirik izan gahe. Diru gabe ezin da bizi, baina Santiago bideak asko erakutsi zidan. Hilabete bat 5 kiloko motxilarekin, oso behar gutxirekin, eta ondo pasu nuen! Ez dugu denbora aurkitzen gure buruari kasu egiteko. Simplifikatu nahi dut bizitzaz: diruarekin egiten ez diren gauza denbora eman. Lehen, urte gogorrak ikusi nituen; orain, oso erraz bizi naizela iruditzen zait. Familia zoragarria daukat, eta denbora daukat bai niretzat bai besteentzat.



Emakume martxosoak

Sevillan 1972an ateratako argazkia duzue goikoa eta honako hauek dira ezkerretik hasi eta eskubira: Inaxi Azpiroz, Joxe Urkizu, Ana Aristi, Ramona Azpiroz, Juanita Elizondo eta Benedita Jauregi. Aipatutako azkena bakarrik dago bizirik gaur egun. Sevillan zortzi bat egin egin zituzten, autobusez joan ziren Donostiatik eta Hotelan egon ziren.

67 bat urte dituzte argazkian, eta horietatik brialargunduta zeuden ordurako (Ana Aristi eta Ramona Azpiroz), ezkongabea zen beste bat (Benedita Jauregi), eta beste hirurak gizona etxeari utzita joan ziren Sevillara (Inaxi

Azpiroz, Joxe Urkizu eta Juanita Elizondol).

Oso lagun onak ziren eta bidaia dexente egin omen zuten elkarrekin. Sevillaz gain, Bartzelona eta Lurdes ere bisitatu zuten. Iruñeara ere behin baino gehiagotan joan omen ziren zezenak ikustera autobusez. Bitxikeria dezentro gertatu zitzaien bidaietan; hala ere, politenetako bat hauxe da: Iruñeara zezenak ikustera joan ziren batean, galdu egin omen ziren. Zer egin jakin ez, eta banku batean eseri ziren jendea nola pasatzen zen ikusten. Halako batean Orioko gizon bat pasa, eta hark azaldu omen zien nondik nota joan zezen plazara.

Purito Manterolak utzitako argazkia.

ODITZ

HORMA ZABALERO OINETAKOAK
GIZON ETA EMAKUMIEN ZATI

Tel. 943 83 00 89

Carmen eta Xonni

Arraindegia

Tel. 943 83 05 37 - 943 83 27 47

EUSKAL OKELA

Juancho harategia
943 83 18 37

ZUMINTZA

ile apaidegia

- Merkataria
- Produktore
- Marketing
- Despliegues mercantiles

Tel. 943 83 17 58

SOLARIUM

IBILALDI GIDATUA

- Aian, apirilaren 28an. Irteera: goizeko 9:30ean, Aiako aparkalekutik. Ibilbidea: Aiati Altzuzelai-rra kotxez egingo da. Ikaskiñeta, Murugil, Semeoa, Elordi, Altzuzelai. Itzuleria: 13:30erako.



SANTA KRUZEGUNA. Maiatzoren 3an ospatzen da Santa Cruz eguna eta San Mairringo ermitan meza izaten da elizari bedeinkatzea. Elorria baserritako ibilbuetan jartzen da azienda edo ganadunak babesteko.

FUTBOL PARTIDUAK

- Erregionala: apirilaren 29an, Orioko FT Tolosaldea KEren kontra.
- Kadeteen 2. maila: maiatzaren 6an, Orioko FT Aitzgorri EKren kontra.
- Gazteen 1. maila: maiatzaren 6an, Orioko FT Antoiniano KEren kontra.

TXURI URDIN

- Txuri Urdinera irteera antolatu du XUGAk maiatzaren 11rako. Izena maiatzaren Brako eman behar da Kolon Txikin.

PLASTIKO BILKETA

- Aian, silo-bola plastikoen bilketa hilaren bigarren astearteetan izango da, hurrengoa, beraz, maiatzaren 8an. Egun berean edo egun bat aurretik jakinaraziko da non utzi.

OSTIRALEAN IAI

- Apirilaren 27an Salatxo tabernan kontzertua izango zela iragarri bazen ere, bertan behera utzi dute.

BIDAIA

- Zaharren babeslekuak bidaia antolatu du maiatzaren 17rako, Kutxa Fundazioak eratuta, Tarazonara (Zaragoza) joateko, han Veruela monasterioa eta bere Ardo museoa bisitatzeko. 5.000 pezetako prezioan bidaia, hamaitetako eta baxaria sartzen dira eta izena emateko epea maiatzaren 7tik 9ra da.

LEHIAKETA

- Herriko gazte asanbladak antolatuta, duen logotipoa edo marrazkia aukeratzeko. Kolon Txiki taherian laga behar dira lanak maiatzaren 29a baino lehen.

HITZALDIA

- EHk hauteskunde kampaña-ren barruan antolatutako hitzaldia maiatzaren 4an egingo da kultur etxean, arratsaldeko 20:00etan.

ZAINTZAKO BOTIKAK

APIRILA

27an, Olaizola
28 eta 29an, Mutiozabal
30ean, Azaldegia

MAIATZA

1ean, Barrenetxea
2an, Iriarte
3an, Olaizola
4an, Mutiozabal
5 eta 6an, Iriarte
7an, Zulaika
8an, Iriarte
9an, Olaizola
10ean, Mutiozabal
11n, Barrenetxea

AZALDEGI: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

BARRENETXEA: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

MUTIOZABAL: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

OLAIZOLA: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 Zarautz

LASA: Herriko plaza. 943 83 09 36 Ono

URANGA: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

IRIARTE: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz

ZULAIKA: Bizkaia kalea, 943 13 39 94 Zarautz

KIA TABERNA

C/ Anibarko Portua, 35 bajo
Tel. 943 83 40 54
20810 ORIO

MARIO
Herriaindegia
Eusko-Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MAKAZAGA

Igeltseritza

- Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

- Presupuesto fijo sin compromiso.

Lan traukuna el
merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

TANATORIO ZARAUTZ

EUFUNERARIAS TALDEA

Hileto giro zerbitzu orokorreko

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Alderdiako zerbitzu
- Belaterri gelak
- Korridak, eskelak, trinitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel/Fax: 943 13 22 52

**Zaragueta
Eskola Orio**

943 89 40 52

**ZURE
HERRIKO
ESKOLA**

943 89 40 52

ORIOKO BALEA

mendeurreneko ospakizunak

Maiatzak 12, larunbata

- 17:00 'Hiru Ibai' rallyko ontziak Oriora iritsiko dira.
- 18:00 Trainerilla estropada.
- 19:30 KALE ANTZERKI HERRIKOIA, moila, plaza, ibaia eta Goiko Kalean.
- 19:30 Bertako produktuen azoka.
- 23:30 Balea elkartekoen danborrada.

Maiatzak 13, igandea

- 17:00 'Hiru Ibai' rally-arekin jarraituz, ontziak ibalan gora abiatuko dira.
- 19:15 Ontziak Aginaga paretiak igaroko dira.
- 19:30 Txoko Alde auzora iritsiko dira. Jai giroko harrera, bertako itsaszaletuen eskutik.
- 20:10 'Ameriketatik' trainerua atoian ekarriko dute Usurbildik Oriora, ibaian behera.

Maiatzak 14, asteburua

- 11:00 Orioko barraren aurrean, 'Ameriketatik' traineruko tripulazioak, Benito Lertxundi-rekin batera, balearen bertsoak kantatuko ditu. Orioko Ikastolako eta Zaragueta eskolako haurrak ere laguntzaile izango dituzte, Pasaia-Lezo Lizeotik etorritako beste ikasle talde batekin batera.
- 20:00 Emeterio Sorazuren hitzaldia kultur etxearen: «Orioren sorrera; itsasoa eta balea-arrantza».

Maiatzak 16, asteazkena

- 20:00 Baleei buruzko bi filmeren emanaldia kultur etxearen: «Ballenas y delfines en Canarias» eta «Sperm Whales».

Maiatzak 17, osteguna

- 20:00 Jose Antonio Azpiazuren hitzaldia kultur etxearen: «Euskal baleazaleak Kaintaurian».

Maiatzak 18, ostirala

- 19:00 Marrazki biziduneko film baten emanaldia kultur etxearen: «Ipar Haizearen Erronka».

Maiatzak 23, asteazkena

- 20:00 Bi filmeren emanaldia kultur etxearen: «Seasons of the Sea» eta «Whalesong».

Maiatzak 24, osteguna

- 20:00 Miren Egañaren hitzaldia kultur etxearen: «Euskal toponimia Ipar Atlantikoan».

Maiatzak 25, ostirala

- 19:00 Marrazki biziduneko film baten emanaldia kultur etxearen: «Ipar Haizearen Itzuleria».